

## **BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK ERAKUNDEAREN GAZTE SOLIDARIOAK PROGRAMAREN EDIZIO BERRIA**

- Programa honek 52 plaza eskaintzen ditu zenbait etxebizitzatan, alokairu konpartituan, hilean 55 euroko prezio sinbolikoan; trukean, ikasleek auzoko proiektu komunitarioetan parte hartu behar dute.
- Hamabigarren edizio honetan, Udal Etxebizitzak erakundeak 20 pisu prestatu ditu Otxarkoagan eta Bilbo Zaharrean programa honetarako, 2021/22 ikasturte unibertsitarioan indarrean egongo dena.
- 400 gazte baino gehiagok, 26 urteko batez besteko adinarekin, parte hartu dute programan hasieratik.
- Programan parte hartzen duten 43 ikasle EHUari ari dira ikasten, 7 Deustuko Unibertsitatean eta 2 Mondragon Unibertsitatean.

(*Bilbon, 2022ko martxoaren 9an*).- Gradu ondoko 52 ikasle gaztek, EHUko (43), Deustuko Unibertsitateko (7) eta Mondragon Unibertsitatekoak (2), plaza lortu dute Bilboko Udal Etxebizitzak-ek "Gazte Solidarioen" programaren hamabigarren ediziora bideratutako 20 etxebizitzetan.

Programa horren bidez udal etxebizitzak eskaintzen dira, alokairu partekatuan, prezio sinboliko baten truke: 55 euro hilean, pertsonako (argindarraren eta uraren gastuak kanpo); etxebizitza horiek hornitutako sukaldea eta altzariak izaten dituzte. Horren truke, ikasleek proiektu komunitarioetan eta kolektibo zaugarriari laguntza emateko ekimenetan parte hartu behar dute, etxebizitza horiek dauden auzoetan; hau da, Otxarkoagan eta Bilbo Zaharrean. Honako honetan, elkarte hauen programetan parte hartzen dute: Bakuva, Claret Enea, Tximeleta eta Itaka Fundazioa.

Ekitaldian izan dira Jon Bilbao, Etxebizitzako zinegotzi eta Udal Etxebizitzetako presidentea; Gorka Moreno, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordea; Nekane Garatea, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetarako bulegoko ostatu- eta harrera-arloko arduraduna, eta Ainhoa Esnaola, Mondragon Unibertsitateko ordezkaria eta unibertsitate horretako Bilboko LEINN gradukoa.

Jon Bilbaoren hitzetan, "dagoeneko hamabigarren edizioa betetzen duen programa honen helburua bikoitza da: ikasleei etxebizitzak modu onean izateko aukera ematea eta udal-etxebizitzetan bizi diren gazte horiek auzoaren gizarte-kausetan parte har dezaten bultzatzea.

Edizio berri honen nondik norakoak azaldu ondoren, etxebizitzetako bat ikustera joan dira, bertan bizi den eta Claret Enea elkartearen lankidetzan jardungo duen ikasleetako batekin. Claret Enea gizarteratze-zentro integrala da, Bilbo Zaharra auzoan dago eta helburu

nagusia desabantaila sozialean dauden pertsona guztien aukera-berdintasuna sustatzea da.

Programan parte hartzen duten ikasleen batez besteko adina 26 urtekoa da. % 54,8 emakumeak dira eta % 45,2 gizonak.

## **NUEVA EDICIÓN DEL PROGRAMA JÓVENES SOLIDARIOS DE VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO**

- **El programa ofrece 52 plazas en alquiler compartido a un precio simbólico de 55 euros al mes; como contrapartida, cada estudiante debe colaborar en proyectos comunitarios en el barrio.**
- **En esta duodécima edición, Viviendas Municipales de Bilbao ha habilitado 20 pisos en Otxarkoaga y Bilbao La Vieja para destinarlos a este programa, que se mantendrá en vigor a lo largo del curso académico universitario 2021/22.**
- **Más de 400 jóvenes, con una edad media de 26 años, han participado en el programa desde su inicio.**
- **43 estudiantes que participan en el programa estudian en la UPV/EHU, 7 en la Universidad de Deusto y 2 en la Universidad de Mondragón.**

*(Bilbao, a 9 de marzo de 2022).*- Un total de 52 jóvenes estudiantes de postgrado, la mayoría de la UPV/EHU (43), así como de la Universidad de Deusto (7) y de la Universidad de Mondragón (2), han obtenido plaza en los 20 pisos que Viviendas Municipales de Bilbao destina a la duodécima edición del Programa “Jóvenes Solidarios”.

El programa ofrece viviendas municipales en régimen de alquiler compartido a un precio simbólico de 55 euros mensuales por persona (gastos de luz y agua no incluidos) y acondicionados con cocina completa y mobiliario. Como contrapartida, las y los estudiantes colaboran en proyectos comunitarios y en el apoyo a colectivos vulnerables en los barrios de Otxarkoaga y Bilbao La Vieja, donde se ubican los pisos en los que residen. En esta ocasión participan en el programa asociaciones como Bakuva, Claret Enea, Tximeleta o la Fundación Itaka.

En el acto han estado presentes, Jon Bilbao, Concejal de Vivienda y Presidente de Viviendas Municipales, Gorka Moreno, Vicerrector del Campus de Bizkaia de la UPV/EHU, Nekane Garatea, responsable del área de alojamiento y acogida de la oficina de Relaciones Internacionales de la Universidad de Deusto y Ainhoa Esnaola, representante de Mondragon Unibertsitatea y del grado LEINN de esta universidad en Bilbao.

En palabras de Jon Bilbao “nuestra apuesta por mantener una edición más este programa, y ya van 12, tiene un doble objetivo como es dar oportunidades de pisos asequibles para estudiantes y contribuir a la implicación de las personas jóvenes que residen en viviendas municipales en las causas sociales del barrio”.

Tras la exposición de los pormenores de la nueva edición se ha realizado una visita a uno de los pisos habilitados para el programa en compañía del estudiante, que lo habita y que

realizará su labor de colaboración social en la asociación Claret Enea, centro integral de inclusión social cuyo objetivo principal es promover la igualdad de oportunidades de todas las personas en desventaja social, en el barrio de Bilbao La Vieja.

La edad media de las y los estudiantes que participan en este programa es de 26 años. El 54,8% son mujeres y el 45,2% son hombres.